



INDUSTRIA IRAULTZA (1. zatia)

Bete hurrengo hutsuneak informazioa ateratzen liburutik:

Industria Iraultza honako hau da: ekoizpeneko prozesuetan masiboki makinak erabiltzen hastearen ondorioz sortu ziren aldaketa ekonomiko eta sozial garrantzitsuen multzoa. Aldaketa horiek (1)..... hasi ziren, XVIII. mendearen bigarren erdian.

Industria Iraultzan bi fase bereiz daitezke: Lehen Industria Iraultza, (2)..... urtearen inguruan hasi zena, eta Bigarren Industria Iraultza, (3)..... urtearen inguruan hasi zena. Industria Iraultza aldaketa handiak eragin zituen nekazaritzan eta (4).....

XVIII. mendera arte, Britainia Handiko biztanleriak hazkunde motela izan zuen; izan ere, jaiotza-tasa altua zen, baina heriotza-tasa ere bai. Hazkunde demografikoarekin, nekazaritzako eta industriako produktuen (5)..... gora egin zuen, eta fabrika berrietan lan egiteko langile (6)..... zeuden.

Mende horren bigarren erdian, hazkunde demografiko handi eta jarraitu bat hasi zen. Arrazoi nagusia izan zen heriotza-tasak (7)..... egin zuela eta jaiotza-tasak (8)..... izaten jarraitu zuela.

Elikagaien eskariak gora egitearen ondorioz, berrikuntzak aplikatu ziren nekazaritzan eta abeltzaintzan. Nekazaritzarako teknikak (9)..... ziren, adibidez, XVIII. mendearen amaiera aldera, zurezko goldearen ordez (10)..... erabiltzen hasi ziren.

Bete hurrengo hutsuneak hitz egoki bakoitza bere tokian jartzen, batzuk sobera daude:

(11)..... mendearen bigarren erdian hazkunde (12)..... handia egon zen (13)..... . Arrazoi nagusiak izan ziren (14)..... behera egin zuela, eta jaiotza-tasak (15)..... izaten jarraitu zuela. Heriotza-tasak behera egin zuen izurri bubonikoaren (16)..... behera egin zutelako, eta hobekuntzak egon zirelako bai higienean bai eta (17)..... ere, eta, horiei esker, herritarrek indar handiagoa zuten (18)..... aurre egiteko. Azkenik, zenbait hobekuntza izan ziren (19).....; adibidez, (20)..... aurkako txertoa asmatu zen, eta (21) berriak eraiki ziren.

elikaduran	Ingalaterran	heriotza-tasak	osasungintzan	altua	XIX.
baztangaren	elgorriaren	izurriteak	ospitale	gaixotasunei	epidemiek
udalak	kultura	demografiko	Frantzia	XVIII.	